



ESKOLA ALDIRIAK. HEZKUNTZA

KOMUNITATEARI ZUZENDUTAKO PROIEKTU

DEIALDIA

HEZKUNTZA // ESKOLA // ARTEA // AUZOA // HARREMANAK // PRAKTIKA
KOLABORATIBOAK //

Zein harreman gustatuko litzaiguke izatea gure gertuko komunitatearekin? Nolakoak dira eskola barruko eta kanpoko espazio publikoak? Nola baldintzatzen eta aldatzen dituzte espazio hauek gure eguneroko harremanak? Nola baliatu praktika artistikoak begirada berriak eraikitzeko?

AURKEZPENA

¿Zer da?

Eskola aldiriak eskolako, auzoko edo hiriko espazioetan arte eta hezkuntza proiektu kolaboratibo bat garatzeko deialdia da. Lan moduak birpentsatu eta hezkuntza komunitatea indartzen dituen ikaste prozesuak abian jartzeko aukera eskaintzen du.

4. edizio honetan, bi modalitate bereizi ditugu, bata Donostialdeko eskolei zuzendutakoa, eta bestea Gipuzkoakoei.

LAN-MARKOA / TESTU-INGURUA

Zein da deialdi honen jatorria?

Azken urteetan “Haurren hiria” bezalako proiektuei esker, hiritartasuna, hiritarren parte



hartzea, eskola eta hezkuntza kontzeptuak modu zabalago batean ulertzen dira. Kalea, plaza, auzoa, eskola, eta abar hezkuntza artistikoen proiektuen garapenerako testuinguru eta lanerako espazio bihurtu dira, eraldaketa soziala sustatzen duten aukerak eskainiz.

Zentzu honetan, Tabakalerako proiektu kulturaletik, hezkuntza arloaren bitartez, hezkuntza proiektuak eta prozesu esperimentalak bultzatu nahi dira kultura garaikidea eta praktika artistikoak hausnarketarako eta ikaste prozesuetarako tresna gisa.

ORAIN ARTE GARATUTAKO PROIEKTUAK

Tabakalerako hezkuntza arloko oinarrizko lan ildoetako batetik abituta, Pedagogiak eta espazio publikoa ildotik hain zuznen, 2014/15 ikasturtean “Auzoko hitzak” proiektu pilotua sortu zen. Orduz geroztik, urtero deialdi hau martxan jarri dugu honako proiektuak burutu ditugularik:

2015/16: [Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara](#), Ikastola Jakintza. (Antiguo, Donostia).

2016/17: [hilHERRIbizi](#), Lauaizeta ikastola, (Intxaurren-Egia, Donostia).

2017/18: [Harremangune](#), Txirrita Eskola Txikia (Ereñotzu, Hernani)

2017/18: [Gelditu, lasaitu eta bizi! \(GLB\)](#). Eskola bideak, Arizmendi Ikastola (Eskoriatza, Gipuzkoa)

HELBURUAK

Zertarako?

Deialdi honen helburu nagusia hezkuntza komunitateak bere gertuko ingurunearekin dituen harremanak hausnartzea eta harreman horiek hezkuntza prozesu baten bitartez indartzea da, testuingurua bera ikasketa eta ekintzarako eremu bezala ulertuz.

Lotutako beste helburu batzuk:

- Auzoko eta hiriko espazio publikoak harremanetarako eremu bezala berreskuratzea.



- Eskolako gatazka, desio edo beharrei erantzun berriak proposatzea.
- Inguruko beste eragile batzuekin dinamika parte-hartzaileak eta metodologia artistikoak erabiliz eraldatze proiektuak aurrera eramatea.
- Prozesu komunitarioak eta talde-lana sustatzea.

METODOLOGIA

Nola egingo dugu lan?

Proiektuak lau fase izango ditu:

- 1- Ko-diseinua lantaldearen eskutik: Hasieratik ikastetxeko irakasleek eta Tabakalerako hezitzaileek osatutako lantalde bat osatuko da proiektua diseinatu eta haren jarraipena egiteko, guzien artean, ardurak banatuta. Fase honetan, proiektua aurkezteaz gain, parte hartuko duten pertsoneri zuzenduta, proiektu diseinuen eta lan metodologiaren inguruko formakuntza saioa antolatuko da.
- 2- Garapena: aurretik adostutako dinamikak eta saioak abian jarriko dira. Fase honetan, bestelako eragileak ere prozesura batzeko aukera izango da, esate baterako artistak, kolektiboak e.a. Euren ekarpenek praktika eta ikerketa artistikoa bera prozesuaren parte izatea ahalbidetuko dute.
- 3- Dokumentazio eta komunikazioa: proiektua inguruko komunitatearekin partekatze moduak bilatuko dira.
- 4- Ebaluazioa: prozesuan zehar sortutako harremanak eta emaitzak modu kualitatiboan baloratzeko saioak egingo dira.

PROIEKTUAREN OINARRIAK

Proiektu-ideien aurkezpena:

Zeini dago zuzendua?

A MODALITATEA

Deialdi hau aurretik azaldutako lan ildoekin bat egiten duten eta proiektu bat aurkeztu



nahi duten Donostialdeko eskola komunitateei (irakasleak, ikasleak, hezkuntza eragileak...) zuzendua dago.

B MODALITATEA

Deialdi hau aurretik azaldutako lan ildoekin bat egiten duten eta proiektu bat aurkeztu nahi duten Gipuzkoako eta Donostialdeko kanpoko eskola komunitateei (irakasleak, ikasleak, hezkuntza eragileak...) zuzendua dago.

Bi modalitateetan, proiektua aurkezten dutenek lan egiteko eragileak proposatuko dituzte: beste eskola bat, auzoko eragile edo talde bat, eskola bereko hezkuntza komunitatea...

Lantaldea proiektua aurkeztu aurretik osatua egon daiteke ala proiektu zehatz honetarako apropos eratu ahal izango da.

Hezkuntza komunitate osoak proiektuaren abiaraztearen berri izatea eta honekin bat egitea komenigarria da.

Eskola bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkeztu ahal izango dute baina bakarra hautatua izango da.

Proiektu-idea aurkezteko www.tabakalera.eu orrialdeko formularioa bete behar da.

Sortu daitezkeen zalantzak ala galderak bideratzeko idatzi hezkuntza@tabakalera.eu helbidera ala deitu 943 011 311 telefono zenbakira.

Zer proposatu daiteke?

Eskolek behar edo desio batetik abituta euren hezkuntza komunitateko harremanekin amankomunak diren espazioekin (eskolarako bidea, plazak, parkea eta abar.) edo 2018/19 ikasturtean garatu nahi dituzten bestelako gaiekin zerikusia duten proiektuak bidali ahal izango dituzte.

Bestelako gai posibleak: eskolako arazo baten inguruan lan egitea, eskola gertuko beste eragileekin batera amankomuneko proiektu bat proposatzea, eskola ezberdinen arteko harremanak indartzen dituen egitasmoak aurrera eramatea, eskola inguruko espazioen



inguruan hausnarketarako prozesu bat zuzentzea, eta abar.

Epeak

Deialdia zabalik izango da maiatzaren 2tik ekainaren 1a arte.

Ebazpena 2018ko ekainaren 15ean argitaratuko da.

Hautatutako proiektua 2018-2019 ikasturtean zehar garatuko da.

Hautaketa irizpideak

Hautaketa prozesuan deialdi honen oinarriekin eta Tabakalerako hezkuntza arloko lan ildoekin bat egiten duten proiektuak baloratuko dira.

Hezkuntza komunitatearen berezko beharretatik sortzen diren proiektuak baloratuko dira. Era berean, sareak ala beste eragileekin talde-lana sustatzen duten proposamenak edo eta hezkuntza komunitatea eta auzoaren arteko harremanean landu nahi dituztenak kontutan hartuko dira.

Proiektuaren bideragarritasunari eta ideien sendotasunari garrantzia emango zaio.

Konpromisoak

Tabakalerak honakoa betetzeko konpromisoa hartuko du:

A MODALITATEA

- Proiektua garatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak ziurtatzea. Hala, Tabakalerako hezitzaile batek lagunduko du ikastetxea proiektu osoan zehar.
- Proiektuaren diseinua eta jarraipena. Lantaldearekin batera, hezitzaileak lan saioak eta dinamikak diseinatu eta aurrera eramango ditu eskolan.
- Tabakalerak proiektua aurrera eramateko aurrekontu bat izango du. Proiektuaren beharren arabera, diru kopuru zehatz bat izango da ekoizpenerako, baina inongo kasutan ezin izango du 8.000 eurotik gora egin.



- Tabakalerako komunikabide eta sare sozialetan jarraipena eta hedatze lana egitea.

B MODALITATEA

- A modalitatearekin alderatuz, B modalitatean giza baliabide gutxiago eskeiniko dira. Tabakalerak proiekturen aholkularitza eta laguntza eskainiko du prozesu guztian zehar, hilabetero bilerak eta saioak eginez (ikasturte osoan 9 saio izango dira).
- Proiektuaren diseinua eta jarraipena. Lantaldearekin batera, hezitzaileak proiektuaren garapenaren jarraipena egingo du, honako lanak aurrera eramanez: irakasleen formakuntza, saioen diseinua, metodologia artistikoetara hurbilpena, eta artistekin sortu daitezkeen loturak bideratzea.
- Tabakalerak proiektua aurrera eramateko aurrekontu bat izango du. Proiektuaren beharren arabera, diru kopuru zehatz bat izango da ekoipzenerako, baina inongo kasutan ezin izango du 3.000 eurotik gora egin.
- Tabakalerako komunikabide eta sare sozialetan jarraipena eta hedatze lana egitea.

Aukeratutako proiektuen arduradunek hurrengo baldintzak betetzeko konpromisoa hartuko dute:

- Proiektua aurrera eramateko konpromisoa hartzea.
- Proiektua bideragarria izan dadin lantaldea edo arduradunak izendatzea.
- Adostatutako lan saioak, egutegia eta ordutegiak errespetatzea.
- Eskolak edo komunitateak berez izan ditzakeen baliabideen ekarpena egitea (oinarrizko materiala, eskolako espazioak, kontaktuak, sareak, eta abar.)
- Lan dinamiketan gerta daitezkeen aldaketen aurrean prestutasuna: ordutegiak, espazioak, antolaketa.

*Proiektuaren modalitatearen arabera hainbat alderdi aldatu daitezke, hala nola, parte hartzaile kopurua, hauen inplikazioa eta prozesuaren iraupena.

TABAKALERA



Aurkeztutako proiektuen arabera, Tabakalerak modalitate bat hutsik uztea erabaki ahal izango du, edo oinarri hauek moldatu ahal izango ditu, betiere aukeratutako proiektuko eragileekin aurretik adostuta.

Info +:

943011311

tabakalera.eu

**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**
—

**CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA**
—

**INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE**
—

tabakalera.eu
—